

Ez aitorpenik, ez ordainsaririk.  
Hala ere ezinbestekoak.

**ELA**  
KAL SINDIKATUA

## ¿PARA CUÁNDO EMPLEOS DIGNOS?



### **Aurtengo martxoak 8 honetan emakumeek berriro aldarrikatzen dugu lana soberan daukagula eta enplegua nahi dugula.**

Hau ez da nobedade bat. Langile klasea eta mugimendu feminista aspaldidanik ari da hori aldarrikatzen, baina: zein lanei buruz ari gara? Zergatik ezin dugu enpleguei buruz hitz egin oraindik?

Praktikan, gure eguneroko borroka sindikala besteren konturako enpleguan oinarritzen da, ekoizpen lan monetarizatuan eta lan baldintza duinen defentsan. Enplegu eta soldata duinak denontzat, gizon zein emakumeontzat.

Baina begirada zabaltzen dugunean eta beste gizarte eredu sozial eta ekonomiko baten bila goazenean, jendarte batean egiten diren lan desberdinen multzoa kontutan edukitzea beharrezkoa dugu, bai etxe barnean egiten diren lanena zein lan zentroetan egiten direnena. Egiten diren lan desberdinak bizi garen jendartearen isla dira.

Eta bizi garen jendarte honetan, badira ikustezinak diren lan batzuk, aitortuak ez direnak, ezta ordainduak ere baina bizitza sostengarri izan dadin guztiz ezinbestekoak direnak. Lan erreproduktiboari eta zaintza lanei buruz ari gara, gehienez emakumeek gure gain hartzen ditugunak eta pilatze kapitalistarentzat oinarritzko baliabide direnak. Hori bai, merkatuaren icebergaren puntaren azpian eta engranaje guztia sostengatuz.

### **Ez daukagu aitorpenik ezta soldatarik ere, baina guztiz ezinbestekoak gara, diogu emakumeek.**

Gure etxea garbitu edo familiarteko kide bat zaintzea ez da lan bat, baina bada etxeko langile bat kontratatu edo erresidentzia edo haurtzaindegi bateko zerbitzuak ordaindu ditzakegunean.

Hala ere, lan hauek enplegu bilakatzen direnean enplegu prekarioak dira eta lan baldintza kaxkarragoekin. Horrela, sexuaren arabera lan banaketak aitorpen sozial eta ekonomiko handiagoa edo txikiagoa duten lanak markatzen ditu, lan merkatu honi emakumeek berezko errealitate propioekin aurre egiten diogularik: langabezia, azpi-enpleguan eta

behin-behineko kontratuetan batez besteko tasa baino handiagoa pairatzen dugu; aparteko aipamena merezi du geroz eta hedatuagoa den kontratu partzialak. La eksklusiboki emakumeona den kontratu hau lan bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonalaren kontziliaziorako koltxoia da, miserizko soldatak dakartza eta horren ondoriozko pentsioak, besteak beste.

Era berean, gizon eta emakumeen arteko soldaten arteko aldea egiturazkoa den genero desberdintasun egoera honen adibide da. Emakumeon soldata garbia gizonetzkoena baino %19,6 gutxiagoa da.

### **Ez daukagu gure gorputzen gain erabakitze eskubiderik**

Lan merkatuari dagokion errealitate honetaz gain eta honekin batera, egun ematen ari den oinarritzko hiritartasun eskubideen murrizketarekin lotu beharra dago. Emakumeek bigarren mailako hiritarrak garen heinean, gure gorputzen gain erabakitze eskubidea zalantzan jartzen ari da (estatu auzia da). Zehazki, haurdunaldi bat boluntarioki eteteko eskubidea, abortu eskubidea, alegia.

Erasoaldi kontserbadore honetan, alde batetik emakumeak erabakiak hartzeko adingabeak bezala kontsideratuak gara, baina aldi berean, eta neurri handi batean, egunerokotasunean eta etxeko esparru pribatuan bizi baldintza duinak bermatzen jarraitzen dugu. Esparru honek esparru publikotik inposatuta datozen des-doikuntza politiken ondorioak leuntzen ditu, kanpora begirako esparru honetan emakumeak ez gaudelarik behar bezala ordezkatuak.

Honegatik guztiagatik, enplegu eta soldata duinen alde borrokatzea beharrezkoa da, noski, baina beharrezkoa da ere ikustezina, aitortu gabea eta bizitzarako ezinbestekoa den mundu hau aitortzea. Gai hau sistema kapitalista eta patriarkalaren funsgabetasunak agendan ipintzen digu, eta martxoak 8 honetan indarrarekin aldarrikatzen dugu.

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA